

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PAULGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzako tarifak aldatzeari

Kontzeju honek, 2018ko apirilaren 21eko bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasak arautzen dituen zerga ordenantzako tarifak aldatzeari; espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratzen da. Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Tarifei dagokien ordenantza atala aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

Saneamenduaren kuota: 0,50 euro/metro kubo.

Hornitze kuota finkoa hileko: 4 euro hileko.

1 kuota. Hileko 35 metro kubo baino gutxiago: 0,80 euro / metro kubo.

2 kuota. 35 eta 60 metro kubo bitartean hileko: 2,4 euro / metro kubo.

3 kuota. Hileko 60 metro kubo baino gehiago: 8,7 euro / metro kubo.

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Paul, 2018ko azaroaren 6a

Lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ORTIZ DE URTARAN